Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolak *Minbizia* lana hartuko du, Olatz Vázquezek gaixotasunean zehar egindako bidaia fotografikoa

Enara Vázquezek eta Urko Pamies argazkilariaren bikotekideak egin dituzte sustapen- eta komisario-lanak erakusketan; bada, azaroaren 6an izango da inaugurazioa, 19:30ean, eta abenduaren 11ra arte egongo da ikusgai

Gasteiz, 2026ko azaroak 4
Gasteizko Arte eta Lanbide eskolak *Minbizia* hartuko du azaroaren 6tik aurrera, Olatz Vázquezen (Bilbo, 1994-2021) argazki-proiektua; izan ere, kazetari eta argazkilari horrek erreminta bilakatu zuen autorretratua, minbizia gastrikoarekin izandako esperientzia dokumentatzeko, gaixotasuna ikusgai egiteko eta aldaketa fisiko eta emozionalek markatutako errealitate hori milaka pertsonarekin partekatzeko.

Erakusketa azaroaren 6an inauguratuko da, 19:30ean, Eskolako erakusketa-guneetan, eta jendearentzat zabalik egongo da abenduaren 11ra arte. Enara Vázquezek eta Olatzen bikotekide Urko Pamiesek sustatu dute erakusketa, eta komisario-lanak egin.

Bizi-esperientzia batetik sortutako argazki-proiektua
Olatz Vázquez Kazetaritzan graduatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Ikus-entzuneko Kazetaritzan espezializatu Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitatean; halaber, ikus-entzunezko komunikazioaren eremuko hainbat hedabide eta enpresatan egin zuen lan. Bere kabuz ikasi zuen argazkigintzan moldatzen, eta arte horrekiko irrikak autorretratua miatzera eraman zuen hastapenetatik; hala, diziplina horixe bihurtu zen haren lanaren ezaugarri nagusietako bat.

2020ko ekainean, baina, bizitza aldatu zitzaion, egoera aurreratuan zegoen minbizia gastrikoa diagnostikatu baitzioten. Orduan, bere esperientziaren berri emateko argazkigintza erabiltzea erabaki zuen, eta “bere bizitzako proiektua” deitu zuena hasi zen: *Minbizia*, bidaia fotografiko bat gaixotasunaren etapetan, uneetan, sentimenduetan eta emozioetan barrena.

Autorretratuen bidez, gehienbat zuri-beltzean eginak, Vázquezek gaixotasunari buruzko kontakizun bisual bat eraiki zuen, zuzena eta intimoa. Irudietan, gorputz- eta emozio-aldaketak, mina, goragalea, tratamenduen ondorioak eta zaintza-premiak ikusten dira, baina baita hain agerikoak ez diren kontuak ere, hala nola mendekotasuna eta prozesuan egonkortasun ekonomikoa edukitzeak daukan garrantzia.

Argazkigintza, horrela, adierazpen eta komunikazio molde bihurtu zen, bere esperientzia partekatzeko eta, aldi berean, askotan aurre egiteko zaila den errealitate bat gizarteratzeko modua.

Argazkigintza, barrenak husteko eta gaitza ikusgai egiteko

Olatzek sare sozialak hautatu zituen bai bere lana hedatzeko, bai lotura bat ezartzeko irudien bidez bere bilakaerari jarraipena egin zioten milaka pertsonekin. Egileak berak honela deskribatu zuen esperientzia hura: “Lasaitua. Amorruzko oihu bat, bizitako guztiagatik eta bizitzeko dagoenagatik”. Patreon plataforman, diagnostikoak bere bizitzan izandako eragina jaso zuen: “Bizitza hiru segundo ziztrinetan alda dakizuke, medikuak hiru hitz hauek esateko behar duen denbora baita hori: Olatz, minbizia daukazu”.

Minbizia lanarekin, argazkilariak ikusgaitasuna eman zion minbizia gastrikoari, eta kontakizun publikoan askotan tokirik izaten ez duten gaixotasunaren alderdiak erakustea lortu zuen. Bere lanak arlo autobiografikoa gainditu zuen, gizartean enpatia, gogoeta eta kontzientzia sortzeko gai den lekukotza bisual bat sortu baitzuen.

Olatz Vázquez 2021eko irailean hil zen, gaixotasunak aurrera egin eta abdomenean metastasia zabaldu ostean. Bere lanak, halere, bizi-bizi jarraitzen du haren begirada beste batzuengana hurbiltzen, bai eta bere argazkien balio fotografikoa aitortzea nahi izan zuen artistak utzitako ondareari bizirik eusten ere.

2023an, *Minbizia. Un viaje a través de la enfermedad* liburua argitaratu zen, Olatzen argazkiak biltzeko eta tratamenduan abian jarritako proiektuari jarraitutasuna emateko. Argitalpenak, hortaz, hezurmamitu egin du ekimen pertsonal gisa hasi eta ondare artistiko eta dokumental bihurtuta bukatutako lan bat.

Lanak bere bidean darrai

Minbizia proiektuak parte hartu du Belgradeko (Serbia) Nazioarteko Argazkigintza Jaialdian, eta hainbat erakusketa kolektibotan ere erakutsi da. Orain, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan egingo den erakusketak lan horretara hurbiltzeko beste aukera bat emango digu, eta gaixotasunaren gogortasuna ezkutatu gabe bere historia kontatzeko modua autorretratuan aurkitu zuen argazkilari baten begirada aurkituko dugu.

Erakusketak, beraz, argazkiak diziplina artistikotik behatzera bultzatuko gaitu, baina baita oroimen-, adierazpen- eta ikusgaitasun-erremintatzat jotzera ere. Olatz Vázquezen esperientzian barrena egindako ibilbideak irudien ahalmenari jartzen dio arreta, batzuetan hitzen bidez nekez adierazten den hori irudien bidez komunikatzeko ahalmenari, alegia.

Informazio gehiago hemen: komunikazioa@escueladeartes.org / Tel. 689 599266